# Xedapen Orokorrak

## EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

### 2990

EBAZPENA, 2009ko apirilaren 24koa, UPV/EHUko idazkari nagusiarena, UPV/EHUko Klaustroa Hautatzeari eta haren Funtzionamenduari buruzko Arautegia eta UPV/EHUko Gobernu Kontseiluaren Funtzionamendurako Arautegia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agindua emateko dena.

Unibertsitateko kide anitzeko organoen artetik Unibertsitateko Klaustroa eta Gobernu Kontseilua dira garrantzitsuenetakoak. Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Legeak (apirilaren 12ko 4/2007 Lege Organikoaren bidez aldaraziak) emandako definizioaren arabera, Unibertsitateko Klaustroa da unibertsitatearen ordezkaritza-organo gorena, eta Gobernu Kontseilua unibertsitatea gobernatzeko ardura daukana.

Estatutuetako 229. artikuluan jasota dago Unibertsitateko Klaustroak eskumena daukala bere kideen hauteskundeetarako arauak onartu eta aldatzeko, eta 236. artikuluan, bestalde, Unibertsitateko Klaustroaren eskumena dela Klaustroaren Funtzionamendurako Arautegia onartzea.

Arautegiaren testua osatzeko prozesua behin bukatuta, Klaustroari dagokion Estatutuak Garatzeko Batzordeak arautegirako proposamena aurkeztu zuen 2008ko abenduan, eta Unibertsitateko Klaustroak 2009ko otsailaren 26an onartu zuen.

Gobernu Kontseiluaren Funtzionamendurako Arautegiak ere pareko ibilbidea egin du apirilaren 12ko 4/2007 Lege Organikoak, Unibertsitateei buruzko Legea aldaraztekoak, zehaztutakora egokitzeko. Horrela, bada, 2009ko apirilaren 23an, Gobernu Kontseiluak arautegia onartu zuen Estatutuak eta Arautegiak Garatzeko Batzordearen irizpena izan ondoren.

Bukatzeko, otsailaren 25eko 3/2004 Legeak, Euskal Unibertsitate Sistemari buruzkoak, 10. artikuluan dio Antolaketaren eta jarduteko moduaren gainean unibertsitate publikoko gobernu organoek emandako estatutuak eta arauak Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko direla, eta argitaratzen direnean jarriko direla indarrean. Bestalde, UPV/EHUko Estatutuetako 258.1.d) artikuluaren arabera, idazkari nagusiak bermatu behar du UPV/EHUko erabakiak era horretan argitaratzen direla.

# Disposiciones Generales

## UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO

### 2990

RESOLUCIÓN de 24 de abril de 2009, de la Secretaria General de la UPV/EHU, por la que se ordena la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco del Reglamento de Elección y Funcionamiento del Claustro y del Reglamento de Funcionamiento del Consejo de Gobierno de la UPV/EHU.

Dos de los órganos colegiados principales de la Universidad son el Claustro Universitario y el Consejo de Gobierno. El Claustro Universitario es definido por la Ley Orgánica 6/2001, de 21 de diciembre, de Universidades, modificada por la Ley Orgánica 4/2007, de 12 de abril, como el máximo órgano de representación de la Comunidad Universitaria. Al Consejo de Gobierno la mencionada Ley le encomienda el gobierno de la Universidad.

El artículo 229 de los Estatutos de la UPV/EHU establece que es competente para la aprobación y modificación de las normas que han de regir las elecciones de sus miembros y el artículo 236 menciona entre las competencias atribuidas al Claustro Universitario la aprobación del reglamento de funcionamiento del Claustro.

Finalizado el proceso de elaboración del texto normativo, la Comisión de Desarrollo Estatutario encomendado al Claustro presentó en diciembre de 2008 la propuesta de Reglamento que fue aprobada en la sesión del Claustro Universitario celebrada el día 26 de febrero de 2009.

Un procedimiento paralelo ha seguido la actualización del Reglamento de Funcionamiento del Consejo de Gobierno, que ha recogido los cambios legales introducidos por la Ley Orgánica 4/2007, de 12 de abril, por la que se ha modificado la Ley de Universidades. En su sesión de 23 de abril de 2009 el Consejo de Gobierno ha aprobado el texto reglamentario, tras el dictamen elaborado por la Comisión de Desarrollo Estatutario y Normativo.

El artículo 10 de la Ley 3/2004, de 25 de febrero, del Sistema Universitario Vasco, ordena que la publicación en el Boletín Oficial del Estado de las normas de organización y funcionamiento de la universidad públicas fecha a partir de la cual entrarán en vigor, correspondiendo a la Secretaria General en virtud de las competencias atribuidas por el artículo 258.1.d) de los Estatutos garantizar dicha publicación.

Hori guztia kontuan hartuta, UPV/EHUko idazkari nagusiak honakoa

EBATZI DU:

***Artikulu bakarra.–*** Agindua ematea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko UPV/EHUko Klaustroa Hautatzeari eta haren Funtzionamenduari buruzko Arautegia, I. eranskinean jasotakoa, eta UPV/EHUko Gobernu Kontseiluaren Funtzionamendurako Arautegia, II. eranskinean jasotakoa.

Leioa, 2009ko apirilaren 24a.

UPV/EHUko idazkari nagusia,
EVA FERREIRA GARCÍA.

Por todo ello, la Secretaria General de la UPV/EHU

RESUELVE:

***Artículo único.–*** Ordenar la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco del Reglamento de Elección y Funcionamiento del Claustro Universitario de la UPV/EHU, en los términos recogidos en el anexo I, y del Reglamento de Funcionamiento del Consejo de Gobierno de la UPV/EHU, según lo dispuesto en el anexo II.

En Leioa, a 24 de abril de 2009.

La Secretaria General de la UPV/EHU,
EVA FERREIRA GARCÍA.

II. ERANSKINA

UPV/EHUko GOBERNU KONTSEILUAREN FUNTZIONAMENDU ARAUTEGIA

HITZAURREA

Gobernu Kontseiluak, 2008ko maiatzaren 10ean egindako bileran, Estatutuetako 241. artikulurako idazkera berria onartu zuen 4/2007 Lege Organikoak, Unibertsitateen Legea aldatzekoak, xedapen gehigarrietatik zortzigarrenean zehaztutakori jarraituz. Estatutuetako aldaketa horrek, era berean, Gobernu Kontseiluaren Funtzionamendu Arautegia egokitzea dakar.

Arautegian asko dira biltzen diren arloak: kideen eskubide eta betebeharrak, bileretarako deiak, bileren nondik norakoak, Gobernu Kontseiluak arautegiak edo erabakiak hartzeko prozedurak, batzorde eskuordetuak eratzea, horien osaera eta kideak aukeratzeko prozedura, Batzorde Iraunkorra (osoko bilkurarekin eskumenak banatuta dituena administrazioaren eraginkortasunaren mesedetan), Estatutuak eta Arautegiak Garatzeko Batzordea, Ekonomia Batzordea eta kontseiluaren ustez egoki izan daitezkeen gainerako batzordeak.

AURRETIKO TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

***1. artikulua.***– Gobernu Kontseiluko burua.

1.– Gobernu Kontseiluko burua errektorea da.

2.– Errektorea bileratik irtenez gero, hark bere ordez izendatuko duena jarriko da buru edo, bestela, Estatutuetako 245. artikuluan aipatutako erabakiari jarraituz legez dagokion errektoreordea.

***2. artikulua.***– Gobernu Kontseiluko idazkaria.

1.– Gobernu Kontseiluko idazkaria UPV/EHUko idazkari nagusia izango da.

2.– Idazkari nagusia bileratik irtenez gero, gerenteak ordezkatuko du edo, bestela, idazkari nagusiaren legezko ordezkoak.

3.– Idazkari nagusia hil, kargua utzi, gaixotu edo kanpoan badago, Estatutuetako 245. artikuluan aipatutako erabakian zehaztutakoari jarraituz legez idazkari nagusiaren ordezko dena izango da kontseiluko idazkari.

ANEXO II

REGLAMENTO DE FUNCIONAMIENTO DEL CONSEJO DE GOBIERNO DE LA UPV/EHU

PREÁMBULO

La nueva redacción del artículo 241 de los Estatutos aprobada por el Consejo de Gobierno en su sesión de 10 de mayo de 2008, en virtud de la Disposición Adicional Octava de la Ley Orgánica 4/2007, de modificación de la Ley de Universidades, hace conveniente la adaptación del Reglamento de Funcionamiento del Consejo de Gobierno.

Además de regular los derechos y deberes de sus miembros, el régimen de convocatorias, el desarrollo de las sesiones, y los distintos procedimientos que desembocan en Normativas o Acuerdos del Consejo de Gobierno, también se regula la composición, elección y funcionamiento de las distintas Comisiones delegadas del mismo, como son la Comisión Permanente, cuyas competencias son compartidas por el Pleno, en busca de una mayor eficiencia administrativa, la Comisión de Desarrollo Estatutario y Normativo y la Comisión Económica, así como la creación de otras posibles comisiones que el Consejo considere conveniente para el mejor desarrollo de sus funciones.

TÍTULO PRELIMINAR

DISPOSICIONES GENERALES

***Artículo 1.***– De la Presidencia del Consejo de Gobierno.

1.– El Consejo de Gobierno es presidido por el Rector o la Rectora.

2.– Si se ausentara durante el transcurso de la sesión, será sustituido por quien designe o, en su defecto, por la Vicerrectora o Vicerrector a quien legalmente corresponda en virtud de la Resolución del Rectorado referida en el artículo 245 de los Estatutos.

***Artículo 2.***– De la Secretaría del Consejo de Gobierno.

1.– La Secretaría del Consejo de Gobierno será asumida por el Secretario o la Secretaria General de la UPV/EHU.

2.– Si el Secretario o Secretaria General se ausentara durante el transcurso de la sesión, será sustituido por el o la Gerente o, en su defecto, la persona que legalmente corresponda.

3.– En caso de fallecimiento, cese, ausencia o enfermedad del Secretario o Secretaria General, asumirá la Secretaría del órgano quien legalmente le sustituya en virtud de la Resolución del Rectorado referida en el artículo 245 de los Estatutos.

***3. artikulua.***– Gerentea.

1.– UPV/EHUko gerentea Gobernu Kontseiluko kide da.

2.– Gerentea hil, kargua utzi, gaixotu edo kanpoan badago, Estatutuetako 245. artikuluan aipatutako erabakian zehaztutakoari jarraituko zaio ordezkoa izendatzeko.

***4. artikulua.***– Kide izatea eta leku hutsak betetzea.

1.– Gobernu Kontseiluko kide izatea norberaren ezaugarria da eta ezin zaio beste inori utzi. Estatutuetako 228. artikuluan aipatutako egoeretan utziko dio ordezkari batek ordezkari izateari, edo kontseiluaren elkarren segidako hiru bileratara edo txandakako bost bileratara justifikatu gabe egiten badu huts.

2.– Organoa behin eratuta, hutsik geratzen diren lekuak kasuan kasuko zerrendetako ordezkoek beteko dituzte. Aipatutako irizpideari jarraitu ondoren bete gabe geratzen den plaza-kopurua talde bateko kideen % 50 baino handiagoa edo organoko kideen % 30 baino handiagoa bada, hauteskunde partzialak egingo dira. Modu horretan hautatutakoak kide izango dira agintaldia amaitu arte.

3.– Ordezkariek lau urteko agintaldia izango dute, ikasleen ordezkariak izan ezik, horiena Unibertsitateko Estatutuetan jasotakoaren araberakoa izango baita.

4.– Gizarte Kontseiluko ordezkarien kasuan organo horren arautegiak dioena beteko da edo, halakorik zehazten ez badu, osoko bilkurak dioena.

***5. artikulua.***– Gobernu Kontseiluko kideen eskubideak eta betebeharrak.

1.– Gobernu Kontseiluko kideek kontseiluko bileretara eta partaide diren batzordeetako bileretara joateko eskubidea eta betebeharra dute. Gainera, unibertsitateko legeriak eta arautegi honek esleitzen dizkien eginkizunak bete behar dituzte.

2.– Bileretara joateak unibertsitateko gainerako betebeharrak betetzetik salbuetsiko ditu organoetako kideak, baina kasuan kasuko organoek beharrezko neurriak hartuko dituzte betebehar horiek bete egiten direla eta zerbitzua eman egiten dela bermatzeko.

3.– Ikasleen ordezkarien kasuan, Idazkaritza Nagusiak jakinaren gainean jarriko ditu kasuan kasuko ikastegi eta sailetako kide bakarreko organoak, eman diezaieten horren berri irakasgaien arduradunei. Modu horretara, Gobernu Kontseiluko kide izateagatik joan beharreko bileretara joateak sortaraz ditzakeen arazoei eta gatazkei aurrea hartu ahal izateko eta konponbideren bat emateko, eta hartara, ikasleontzat bateragarri izan daitezen ikasketetako betebeharrak eta ordezkari legez dituztenak.

4.– Gobernu Kontseiluko kideek eskubidea dute euren eginkizunak aurrera eramateko beharrezkoa izan

***Artículo 3.***– Del Gerente o la Gerente.

1.– Forma parte del Consejo de Gobierno el Gerente o la Gerente de la UPV/EHU.

2.– En caso de fallecimiento, cese, ausencia o enfermedad del Gerente o la Gerente será suplido por quien legalmente le sustituya en virtud de la Resolución del Rectorado referida en el artículo 245 de los Estatutos.

***Artículo 4.***– Condición de miembro y cobertura de vacantes.

1.– La condición de miembro del Consejo de Gobierno es personal e intransferible, perdiéndose por las causas recogidas en el artículo 228 de los Estatutos, así como por la inasistencia injustificada a tres sesiones consecutivas o a cinco alternas.

2.– Constituido el órgano, las bajas que se produzcan serán cubiertas con los suplentes de las respectivas listas. Caso de que el número de bajas no susceptibles de cobertura por la vía anterior afecte al 50% de miembros del estamento respectivo o al 30% de los miembros del órgano, se realizarán elecciones parciales para cubrir las bajas que se hubiesen producido. Quienes así resulten elegidos conservarán su condición hasta la expiración del mandato a sustituir.

3.– La duración del mandato será de cuatro años, salvo para la representación del alumnado que será la que esté recogida en los Estatutos de la Universidad.

4.– En el caso de la representación del Consejo Social se estará a lo dispuesto en su Reglamento o, en su defecto, a lo que decida su Pleno.

***Artículo 5.***– Derechos y deberes de las y los miembros del Consejo de Gobierno.

1.– Las y los miembros del Consejo de Gobierno tienen el derecho y el deber de asistir a las reuniones del Consejo y de las Comisiones a las que pertenezcan, debiendo desempeñar las funciones a que vengan obligados por la legislación universitaria y por este Reglamento.

2.– La asistencia a las sesiones eximirá de otros deberes universitarios, debiendo los órganos concernidos arbitrar las medidas oportunas para asegurar el cumplimiento de este deber y el mantenimiento del servicio.

3.– En el caso de la representación del alumnado, por parte de Secretaría General se informará de esta condición a los órganos unipersonales de los Centros y Departamentos afectados, para su comunicación a los y las responsables de las respectivas asignaturas, con el fin de prevenir y resolver los posibles conflictos que pueda generar su condición de miembro del Consejo de Gobierno, de modo que se garantice la compatibilidad del desempeño de sus tarea con el cumplimiento de sus obligaciones académicas.

4.– Las y los miembros del Consejo tendrán derecho, igualmente, a solicitar y acceder a toda la docu-

dezaketen unibertsitateko dokumentazioa eta informazioa eskatu eta eskuratzeko. Informazioa idatziz edo bide telematikoaren bitartez eskatuko diote Idazkaritza Nagusiari, eta idazkaritzak zazpi eguneko epean emango die, eskaera jasotzen duenetik kontatzen hasita. Idazkaritzak ez badauka eskura eskatu zaion informazioa, ahalik eta azkarren lortu beharko du, eskaera eginda kasuan kasuko organoari. Organo horrek aipatutako epea izango du informazioa emateko, edo zergatik ezin duen eman azaltzeko.

5.– Bileretara joateaz gain, Gobernu Kontseiluko kideen betebeharrak dira:

a) UPV/EHUren erakunde-helburuak lortzen laguntzea.

b) Estatutuetan eta arautegi honetan jasotakoa betetzea.

c) Beren lanak egiterakoan izandako eztabaiden eta lortutako informazioen inguruan behar bezalako zuhurtzia izatea.

d) UPV/EHUko Estatutuetan eta legeetan jasotako gainerakoak.

I. TITULUA

GOBERNU KONTSEILUAREN ARAUBIDEA

*6. artikulua.*– Bilerak eta bileretarako deiak.

1.– Bilerak ohikoak eta ezohikoak izan daitezke.

2.– Bileretarako deiak, oro har, ohikoak izango dira, eta seihileko bakoitzean gutxien dela 3 bilera egingo dira.

3.– Gobernu Kontseiluak ezohiko bilera egingo du aztertu beharreko gaiak direla-eta hala egin behar denean, baita aplikatu beharreko arautegiak xedatutako kasuetan ere. Ezohiko bileretako aztergaien zerrendan ez dira agertuko gai hauek: aurreko akten onespena eta galde-eskeak.

4.– Premiazko bilerak ezohikoak izango dira. Bilera egiteko organoko kideen bi heren egon beharko dira bertan eta bilera premiazkoa dela berretsi beharko dute bertaratuen gehiengo osoaren aldeko botoarekin.

*7. artikulua.*– Bilerarako dei egitea.

1.– Gobernu Kontseiluko buruak egin behar ditu organoaren bileretarako deiak, berak hala erabakitzen duenean edo kideen % 25ek eskatzen duenean. Azken kasu horretan ezohiko bilera egingo da, eskaera aurkeztu eta gehienez ere zazpi egun balioduneko epean.

2.– Organoko burua hil, kargua utzi, gaixotu edo kanpoan badago, errektorearen legezko ordezkoak egin dezake Gobernu Kontseilurako deia. Ordezkorik ez ba-

mentación e información universitaria necesaria para el ejercicio de sus funciones, previa solicitud por escrito o por vía telemática a la Secretaría General, que deberá facilitar la información de que disponga en el plazo máximo de siete días desde su recepción. En caso de que no obre en su poder, deberá recabarla a la mayor brevedad de los órganos universitarios concernidos, los cuales la suministrarán en aquel mismo plazo o explicarán las razones por las que no resulta posible.

5.– Además del deber de asistencia a las reuniones, son deberes de las y los miembros del Consejo de Gobierno:

a) Contribuir a los fines institucionales de la UPV/EHU.

b) Cumplir lo dispuesto en los estatutos y en el presente reglamento.

c) Guardar la debida reserva respecto de las deliberaciones y de aquellas informaciones obtenidas en el ejercicio de sus funciones.

d) Cualesquiera otros que sean establecidos por la legislación y los Estatutos de la UPV/EHU.

TÍTULO I

RÉGIMEN DE FUNCIONAMIENTO DEL CONSEJO DE GOBIERNO

***Artículo 6.***– Clases de convocatorias y periodicidad de las sesiones.

1.– Las convocatorias podrán ser para sesiones ordinarias o extraordinarias.

2.– Las convocatorias deberán ser, generalmente, para sesiones ordinarias y en período lectivo celebrándose al menos tres sesiones cada semestre.

3.– El Consejo de Gobierno se convocará con carácter extraordinario cuando la naturaleza del asunto lo requiera o así lo disponga la normativa aplicable. El orden del día no incluirá ni aprobación de actas anteriores ni ruegos y preguntas.

4.– Las reuniones urgentes tendrán carácter extraordinario. Requerirán para su celebración la presencia de más de dos tercios de las y los miembros del órgano y que se declare la urgencia del asunto con el voto favorable de la mayoría absoluta de los y las presentes.

***Artículo 7.***– Realización de la convocatoria.

1.– Corresponde a la Presidencia realizar la convocatoria de las sesiones por propia iniciativa o a solicitud del 25% de los miembros del órgano; en este caso la sesión se celebrará con carácter extraordinario en el plazo máximo de siete días hábiles desde la solicitud.

2.– En caso de su fallecimiento, cese, ausencia o enfermedad la convocatoria podrá ser realizada por quien legalmente sustituya al Rector o Rectora. En su defecto,

dago, Gobernu Kontseiluan denbora gehien daraman dekanoak edo zuzendariak egingo du deia, unibertsitatearen gobernagarritasuna bermatzeko.

3.– Bilerarako deia organoko idazkariak bideratuko du, behar bezala, bileraren data baino gutxienez lau egun lehenago. Deialdian adieraziko da bilera non egingo den, zein egun eta ordutan, eta deiari aztergaien zerrenda erantsiko zaio.

Aztergaiei buruzko dokumentazio osoa Unibertsitateko Idazkaritza Nagusian izango dute eskura organoko kideek, gutxien dela bilera baino 48 ordu lehenago, eta deia egin den egun berean egongo da jarrita web orrian.

4.– Estatutuetako 242. artikuluak dioena betetzeko, bileretako deiak honako lekuetara ere bidaliko dira: errektoreordetzetara, ikastegietako dekanotza eta zuzendaritzetara, sailetako zuzendaritzetara, ikerketa institutuetako zuzendaritzetara, UPV/EHUn ordezkaritza daukaten sindikatuetara eta UPV/EHUko Ikasleen Kontseilura.

5.– Unibertsitateko gainerako kideei ere deialdiaren berri eman ahalko zaie, horretarako jarriko den web orriaren bitartez.

***8. artikulua.***– Aztergaiak.

1.– Gobernu Kontseiluaren bileretako lehenengo aztergaia aurreko bileretako aktak onartzea izango da eta azkena, galde-eskeak. Kontseiluko kideen % 20k, gutxienez, edo Kontseiluan ordezkaritza daukaten taldeetako kideen % 100k aztergaien zerrendan punturen bat sartzea proposatzen badu Kontseiluko buruari zuzendutako idatzi baten bidez, puntu hori ere jaso egin behar da zerrendan. Idatzi hori UPV/EHUko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko da bilerarako deia egin baino lehenago, beharrezko dokumentazioarekin batera.

2.– Aztergaien zerrendan errektoreak informazioa emateko puntua agertzen bada, Gobernu Kontseiluko kideek hitz egiteko eskubidea izango dute, errektoreak informazioa eman ondoren, baina behin baino ezin izango dute hitz egin.

3.– Ezingo da hartu aztergaien zerrendan agertzen ez diren puntuei buruzko erabakirik; hala ere, bileran organoko kideen bi heren baino gehiago badaude, eta botazioa eginda gehiengo osoak gaia premiazkoa dela uste badu, erabakia hartu ahal izango da.

***9. artikulua.***– Kide anitzeko organoa eratzea.

1.– Kide anitzeko organoa balioz eratzeko, beharrezkoa izango da kideen gehiengo osoa egotea lehen deialdian, edo kideen heren bat egotea, gutxienez, bigarren deialdian (lehengo deialdia baino 15 minutu beranduago). Edonola ere, organoko burua eta idazka-

lo convocará y presidirá el Decano, Decana, Director o Directora más antigua en el cargo de entre las y los integrantes del Consejo de Gobierno para garantizar la gobernabilidad de la Universidad.

3.– La convocatoria se formalizará por la Secretaría con las debidas garantías y como mínimo cuatro días antes de la celebración de la sesión; en ella se expresarán el día, hora y lugar, y se adjuntará el orden del día de la reunión.

La documentación íntegra de los asuntos quedará depositada, a disposición de sus miembros, en la Secretaría General de la Universidad, en todo caso, 48 horas antes de la reunión, y en la correspondiente dirección web desde el mismo día de la formalización de la convocatoria.

4.– A los efectos de garantizar lo dispuesto en el artículo 242 de los Estatutos, el aviso de la convocatoria de las sesiones se remitirá también a los Vicerrectorados, los Decanatos y Direcciones de Centros, de Departamentos e Institutos Universitarios de Investigación, así como a las Secciones Sindicales con representación en la UPV/EHU, a los Consejos de Estudiantes de Centro, y en su caso de Campus, y al Consejo de Estudiantes de la UPV/EHU.

5.– Igualmente, la convocatoria se podrá difundir en la comunidad universitaria a través de la página web habilitada al efecto.

***Artículo 8.***– Orden del día.

1.– El orden del día de los Consejos de Gobierno se abrirá con la aprobación de las actas de sesiones anteriores y finalizará con los ruegos y preguntas. Deberá igualmente contener las peticiones avaladas por al menos un 20% de las y los miembros del Consejo o el 100% de las y los miembros de cualquier sector representado en éste, mediante escrito dirigido a la Presidencia, a través del Registro General de la UPV/EHU/EHU, con anterioridad a la convocatoria de la reunión y acompañado de la documentación correspondiente.

2.– Cuando en el orden del día se incluya como punto el Informe del Rector o de la Rectora, concluido éste, los y las miembros del Consejo de Gobierno tendrán derecho a un único turno de intervención sobre el contenido del mismo.

3.– No podrá adoptarse ninguna decisión sobre asuntos que no figuren incluidos en el orden del día, a menos que estén presentes más de dos tercios de las y los miembros del órgano y se declare la urgencia del asunto con el voto favorable de la mayoría absoluta de los y las presentes.

***Artículo 9.***– Constitución del órgano colegiado.

1.– El órgano colegiado quedará válidamente constituido, en primera convocatoria, con la presencia de la mayoría de sus miembros y, en segunda convocatoria, 15 minutos después, con la presencia de al menos la tercera parte. En todo caso, será necesaria la asistencia de

ria beti egon beharko dira edo, bestela, haien legezko ordezkoak.

2.– Organoa bigarren deialdian eratzeko beharrezko quoruma bozketa guztietan izango da beharrezkoa.

3.– Presazko bilerak lehenengo deialdian egingo dira beti.

***10. artikulua.***– Bileren nondik norakoak.

1.– Kide anitzeko organoko buruak bilera behar bezala antolatuko du eta, horretarako arrazoirik egonez gero, bertan behera utzi ahal izango du. Horrelakoetan, une horretan bertan adierazi beharko du zein egun, ordu eta lekutan jarraituko du bilerak eta horixe izango da bertaratuak jakitun jartzeko bidea. Bilerari berriz ekiteko epea hurrengo bi egun baliodunak izango dira.

2.– Eztabaidak gai zerrendari jarraiki egin behar dira. Dena dela, beharrezkoa izanez gero, kide anitzeko organoak bileraren ordena aldatzea erabaki dezake, organoko buruak proposamena egin ondoren.

3.– Egoki deritzonean, kide anitzeko organoko buruak organoko kide ez diren pertsonak gonbidatu ahalko ditu bileretara, aztergaien zerrendako punturen batekin zerikusia duen iritzia edo informazioa eman dezaten. Aktan jaso egingo da bileran gonbidatuak izan direla eta gonbidatuek ez dute botoa emateko eskubiderik izango.

4.– Unibertsitateko kideak Gobernu Kontseiluaren bileretara joan ahal izango dira, betiere, leku nahikoa badago. Edonola ere, kontseiluko buruak, egoera kontuan hartuta, bilera itxia egitea erabaki dezake, hala bilera osoa nola gairen bat aztertzeko tartea. Erabaki horren berri deialdia egitean edo bileraren hasieran eman dezake, bai eta bileran zehar ere.

5.– Artikulu honetako 3. eta 4. puntuetan aipatutako kide guztiek zuhurtziaz gorde beharko dute Gobernu Kontseiluaren bileran emandako informazioa eta bileran adierazitakoa; horrela egin ezean, diziplina arloko edo bestelako erantzukizuna izan dezakete.

***11. artikulua.***– Bileretan hitz egitea.

1.– Gobernu Kontseiluko eta Zuzendaritza Kontseiluko kideek hitz egiteko eta proposamenak aurkezteko eskubidea izango dute aztergaien zerrendako puntu bakoitzean, arautegiak onartzeko puntuetan izan ezik. Dena dela, arautegi honetan jasotakoa eta kontseiluko buruak agindutakoa bete beharko dute.

Kideek, oro har, hiru aldiz hartu ahal izango dute parte puntu bakoitzean. Lehenengo parte hartzea bost minutukoa izango da eta beste biak hirukoak, salbuespenak salbuespen.

2.– Ikastegietako dekano eta zuzendariek, sailetako zuzendariek, ikerketa institutuetako zuzendariek, sindi-

la Presidencia del órgano y de la persona que ocupe la Secretaría o, en su caso, de las personas que legalmente les sustituyan.

2.– El quórum necesario para la constitución en segunda convocatoria habrá de mantenerse en toda votación.

3.– Las sesiones de carácter urgente sólo podrán celebrarse en primera convocatoria.

***Artículo 10.***– Desarrollo de la sesión.

1.– La Presidencia asegurará el desarrollo ordenado de la sesión, que podrá suspender en cualquier momento por causa justificada. En ese caso deberá fijar en ese momento el día, la hora y el lugar en que se reanudará la sesión dándose por notificados los presentes. En cualquier caso deberá reanudarse dentro de los dos días hábiles posteriores.

2.– Los debates se ajustarán al orden del día. No obstante, podrá ser alterada la secuencia por acuerdo del órgano colegiado cuando así lo aconsejen las circunstancias y a propuesta de quien presida la sesión.

3.– La Presidencia del órgano colegiado podrá invitar a sus reuniones a personas que no sean miembros del mismo cuando lo estime oportuno, con el objeto de que aporten opiniones o informaciones de interés para el órgano colegiado en asuntos relacionados con algún punto del orden del día. En el acta de la reunión se hará constar la asistencia de invitados, quienes en ningún caso tendrán derecho a voto.

4.– Los y las miembros de la comunidad universitaria podrán asistir a las sesiones del Consejo de Gobierno, dentro de los límites de aforo de la sala. En todo caso, la Presidencia, a la vista de las circunstancias concurrentes, podrá convocar la sesión con carácter restringido en su totalidad, en alguno de sus puntos, o declararla así al comienzo o en el transcurso de la sesión.

5.– Todas las personas a las que se refieren los puntos 3 y 4 de este artículo están obligadas a guardar la debida reserva respecto de las deliberaciones y de aquellas informaciones obtenidas durante el desarrollo de la sesión del Consejo de Gobierno, pudiendo, en caso contrario, incurrir en responsabilidad disciplinaria o de otro tipo.

***Artículo 11.***– Intervenciones durante la sesión.

1.– Los y las miembros del Consejo de Gobierno y del Consejo de Dirección tendrán derecho a intervenir y, salvo lo dispuesto para la aprobación de normas reglamentarias, a presentar propuestas en relación con cada uno de los puntos del orden del día, respetando en todo caso la regulación recogida en este Reglamento y las indicaciones que emanen de la Presidencia del órgano.

Con carácter general las y los miembros tendrán, en cada punto, derecho a tres turnos de intervención. Salvo en casos excepcionales, el primero no durará más de cinco minutos y tres los otros dos.

2.– También los Decanos, Decanas, Directoras y Directores de Centro, las Directoras y Directores de De-

katuetako ordezkariek eta campusetako, ikastegietako eta UPV/EHUko ikasleen Kontseiluetako buruek ere hitz egiteko eskubidea izango dute aztergaien zerrendako puntu bakoitzean, baldin eta aztergaiak euren arlokoarekin lotura zuzena badauka eta kontseiluko buruak horretarako baimena ematen badie.

Bilerako buruak ahalegina egingo du hitza emateko unibertsitateko gainerako kideei ere, baldin eta erabaki proposamenak zuzenean eragiten badie; edozelan ere, txanda bakarra izango dute hitz egiteko.

3.– Bilerako buruak alusioengatik hitz egiteko txanda eman ahal izango du eztabaidan, beharrezkotzat jotzen duenean.

4.– Kontseiluko kideek ordena arazoak planteatu ahal izango dituzte, honako hauetarako: aztergaien zerrenda betearazteko, arautegia egokiro aplikatzea bermatzeko, eztabaida amaitzea eskatzeko, bilera behin-behinekoz bertan behera uztea eskatzeko, eta eztabaida atzeratzea nahiz harekin jarraitzea eskatzeko.

Bestalde, bilerako buruak eskaria egin diezaieke kideei gaiari lotzeko, baldin eta beste gai bati buruz ari badira edo gai horri buruzko eztabaida bukatuta badago edo bozketa egina.

5.– Gobernu Kontseiluko kideek aztergaien zerrendan jasotako puntuen inguruko proposamenak egin ahal izango dituzte baina, hala ere, arautegiak direnean bete egin beharko da horiek onartzeko prozedura.

***12. artikulua.***– Interpelazioak eta galderak.

1.– Gobernu Kontseiluko kideek, beren izenean edo unibertsitateko kideen izenean, unibertsitatearen gobernuari buruzko interpelazioak eta galderak egin ahal izango dituzte, gaiaren arloan eskumena daukan karguak erantzun ditzan.

2.– Galderak ahoz egin ahal izango dira «Galde-eskeak» puntuan. Erantzuna ahoz edo idatziz eman ahal izango da, betiere, organoaren hurrengo ohiko bilera amaitu baino lehen.

3.– Interpelazioak idatziz aurkeztuz gero Idazkaritza Nagusian Gobernu Kontseiluaren ohiko bilera baino 48 ordu lehenago, erantzuna bileran bertan eman beharko da.

***13. artikulua.***– Botazioa.

1.– Erabakiak hartu ahal izateko, emandako boto baliodunen artetik gehiengo soila behar izango da, Estatutuek, arautegi honek edo gainerako lege-xedapenek beste gehiengoren bat eskatzen duten kasuetan izan ezik. Horrenbestez, proposamen bakarra izanez gero, onartu egingo da aldeko botoak kontrakoak baino ge-

partamento y de Instituto Universitario de Investigación, las y los representantes sindicales y los presidentes o presidentas del Consejo de Estudiantes de la UPV/EHU, de Campus o de Centros tienen derecho a hacer uso de la palabra, previa concesión de la Presidencia, en relación con los puntos del orden del día que afecten directa y exclusivamente a sus respectivos ámbitos.

La Presidencia de la sesión procurará atender mediante la concesión de un único turno de palabra, aquellas solicitudes de intervención procedentes de las personas pertenecientes a la Comunidad Universitaria que estuvieran directamente afectadas por la propuesta de acuerdo.

3.– Cuando proceda, en el desarrollo de los debates, la Presidencia concederá un turno por alusiones.

4.– Cualquier miembro del Consejo podrá plantear cuestiones de orden con el fin de asegurar el cumplimiento del orden del día, garantizar la aplicación correcta del Reglamento, solicitar el cierre de la discusión, pedir el levantamiento o suspensión provisional de la sesión, el aplazamiento del debate o su continuación.

Asimismo, podrán ser llamados a la cuestión de la cual se trate por la Presidencia siempre que estuvieren fuera de ella, bien sea por tratar aspectos distintos al asunto, bien por volver a lo que estuviese discutido o votado.

5.– Dejando a salvo lo dispuesto para la aprobación de normas reglamentarias, cualquier miembro del Consejo de Gobierno podrá formular propuestas en relación con los puntos incluidos en el orden del día.

***Artículo 12.***– Interpelaciones y preguntas.

1.– Cualquier miembro del Consejo de Gobierno podrá presentar interpelaciones y preguntas referentes a cuestiones universitarias, a iniciativa propia o de cualquier integrante de la Comunidad Universitaria, para que sean respondidas por quien por razón de su cargo sea competente.

2.– Las preguntas podrán formularse oralmente en el punto de «Ruegos y preguntas» del orden del día, pudiendo ser respondidas oralmente o por escrito al interesado y, en todo caso, antes de finalizar la siguiente sesión ordinaria del órgano.

3.– Las interpelaciones que se presenten por escrito en la Secretaría General de la Universidad, con anterioridad mínima de 48 horas a la celebración del Consejo de Gobierno ordinario, deberán ser respondidas en esa misma sesión.

***Artículo 13.***– Votación.

1.– Los acuerdos habrán de adoptarse por mayoría simple de votos válidamente emitidos, excepto en los supuestos en los que los Estatutos, el presente Reglamento u otras disposiciones legales o reglamentarias exijan una mayoría diferente. En consecuencia, en caso de que existiera una única propuesta, ésta quedará apro-

hiago badira. Bi proposamen daudenean, aldeko boto gehien lortzen duena onartuko da. Proposamenak bi baino gehiago direnean, emandako botoen gehiengoa lortzen duena onartuko da; edo, lehenengo botazioan boto gehien lortu dituzten bi proposamenak hartuta, bigarren botazioan boto gehien lortzen dituena.

2.– Berdinketa izanez gero, berriro egingo da botazioa; hala ere berdinketa izanez gero, organoko buruaren kalitate botoak erabakiko du.

3.– Botazioak isilpekoak izango dira, kide anitzeko organoko kideren batek eskatzen badu. Dena dela, botazioa beti izango da isilpekoa pertsonei buruzkoa bada.

4.– Kideek beren botoa eta horretarako arrazoia jasota geratzea eska dezakete; idatzi bidez egingo dute kontseiluko buruak adierazitako eran. Unibertsitateko beste organo batzuei egindako proposamenak badira, kideen boto partikularrak beti agerrarazi behar dira proposamenekin batera.

5.– Aurkako botoa ematen dutenek horretarako arrazoia emanda edo jendaurrean abstenitu egingo direla adierazten dutenek ez dute hartutako erabakien ondoriozko erantzukizunik izango.

*14. artikulua.*– Bilerako akta.

1.– Idazkariak bilerako akta egingo du, eta akta hori, oro har, hiru hilabeteko epean onartuko da. Akta bi hizkuntza ofizialetan emango da argitara baina, edonola ere, parte hartze bakoitzean erabili den hizkuntza errespetatuta.

2.– Aktetan honako hauek jaso behar dira nahitaez: bilerara etorri direnen zerrenda eta bilera amaitu aurretik joan beharra adierazi dutenena; gai zerrenda; bilera tokia eta ordua; bileran aztertutako puntuak; botazioak nola egin diren ea emaitzak; hartutako erabakien edukia eta, egoki joz gero, arrazoiaren azalpen laburra.

3.– Aktetan boto partikularrak ere jaso behar dira, eskaria berariaz egin bada. Kide anitzeko organoko edozein kidek eskatu ahal izango du bere parte hartzea edo proposamena jasotzeko aktan. Horretarako, idatziz aurkeztu beharko du testua eskaera egin eta segituan edo, bestela, organoko buruak adierazitako moduan.

4.– Kide anitzeko organoko kideek aktan aldaketak egiteko proposamenak egin ditzakete akta onartzeko unean. Idazkariak egiaztatu egin beharko ditu proposatutako aldaketak, eta, gehiengoak aldeko botoa ematen badu, onartu egingo dira.

5.– Kide anitzeko organoa aldatu baino lehen, bilera egin beharko da onartzeke dauden akta guztiak onartzeko. Bilera hori egitea ezinezkoa bada, akten zirriborroak bidaliko zaizkie kide anitzeko organoko kide zirenei eta hamar eguneko epea emango zaie erreklamazioak egite-

bada si cuenta con más votos afirmativos que negativos. Si hubiera dos propuestas, se aprobará la que más votos obtenga. Habiendo más de dos propuestas, quedará aprobada aquella que obtenga la mayoría de los votos emitidos o, en segunda votación, la que obtenga más votos de entre las dos más votadas en la primera votación.

2.– En caso de votaciones con resultado de empate, se efectuará una nueva votación y, si persistiera el empate, la Presidencia del órgano deberá ejercer el voto de calidad.

3.– La votación será secreta siempre que lo solicite algún miembro del órgano colegiado y, en todo caso, cuando afecte a personas concretas.

4.– Cualquier miembro podrá hacer constar su voto particular y los motivos que lo justifican, entregándolo por escrito en la forma en que lo establezca la Presidencia. Cuando se trate de propuestas realizadas a otros órganos de la Universidad, los votos particulares de sus miembros se harán constar siempre conjuntamente con aquéllas.

5.– Quienes voten en contra y así lo hagan constar motivadamente, o se abstengan públicamente quedarán exentos de la responsabilidad que, en su caso, pudiera derivarse del mencionado acuerdo.

*Artículo 14.*– Del acta de la sesión.

1.– La Secretaría levantará acta de la sesión que se aprobará, con carácter general, dentro de los tres meses siguientes. En el acta, que se publicará en los dos idiomas oficiales, se respetará el idioma en el que se ha realizado cada intervención.

2.– El acta incluirá necesariamente la relación de miembros asistentes, con mención expresa de quienes antes de la finalización de la sesión hayan excusado su presencia, el orden del día, el lugar y la hora en la que se ha celebrado la sesión, los puntos tratados, forma y resultado de la votación y el contenido de los acuerdos adoptados, en su caso, con una sucinta motivación.

3.– En el acta figurarán, a solicitud de las y los miembros del órgano interesados, los votos particulares en su caso formulados. Cualquier miembro del órgano colegiado puede solicitar la reproducción en el acta de su intervención o propuesta siempre que la aporte por escrito de forma inmediata o, en su caso, en el término que determine la Presidencia del órgano.

4.– Las y los miembros del órgano colegiado podrán proponer modificaciones al acta en el momento en que sea sometida a su aprobación. La Secretaría contrastará la propuesta de modificación que será aprobada con el voto favorable de la mayoría.

5.– Con anterioridad a la renovación del órgano colegiado se deberá convocar una sesión para la aprobación de las actas pendientes. De no ser esto posible, se remitirá el borrador de éstas a quienes eran miembros del órgano colegiado, que dispondrán de un plazo de

ko. Epe horretan ez bada erreklamaziorik egiten, aktak onartutzat emango dira. Hala ez bada, organo berriaren hurrengo bileran onartu beharko dira.

6.– Onartutako aktak Gizarte Kontseilura, campusetako errektoreordetzetara, ikastegietara, atal sindikaletara eta UPV/EHUko Ikasleen Kontseilura bidaliko dira, unibertsitateko kideek eskura izan ditzaten.

*15. artikulua.*– Erabakiak argitaratzea.

1.– Idazkaritza Nagusiak, ondoren, kide anitzeko organoak hartutako erabakien testu osoa emango du argitara web orrian, datu pertsonalei buruzko legean zehaztutakoari jarraituz. Hartara, unibertsitateko kide guztiek izan ahalko dute erabakien berri.

2.– Aipatutakoa gorabehera, pertsonei buruzko erabakiak interesatuei jakinarazi beharko dizkie kide anitzeko organoari proposamena egin zion organoak. Pertsona horiek erabakiaren aurka egin ahal izango dute legeak xedatutako moduan eta erabakia jakinarazten denean hasiko da horretarako epea kontatzen.

*16. artikulua.*– Erabakiak betearaztea eta errekurtsoak jartzea administrazio bidean.

1.– Kide anitzeko organoak hartutako erabakiek onartzen direnetik aurrera dute eragina, erabakian bertan kontrakorik adierazi ezean. Zuzendaritza Kontseiluaren kasuan kasuko organoak izango du Gobernu Kontseiluaren erabakiak betearazteko ardura.

2.– Hilabeteko epea egongo da aukerako berraztertzeko errekurtsoa jartzeko Gobernu Kontseiluaren, Batzorde Iraunkorraren eta batzorde ordezkarien erabakien kontra. Errekurtsoa erabakia eman zuen organoari aurkeztu beharko zaio. Kautela neurrietarako eskariaren inguruko erabakia hartzeko zehaztuta dagoen epean ezinezkoa bada organoaren bilera egitea, errektoreak, edo Estatutuetako 245. artikuluan aipatutako errektorearen erabakian zehaztutakoari jarraituz haren ordezko denak, izango ditu erabakia hartzeko eskumenak eskuordetuta.

II. TITULUA

PROZEDURAK

I. KAPITULUA
GOBERNU KONTSEILUARENTZAKO PROPOSAMENAK ETA ERABAKIAK TRAMITATZEKO PROZEDURA

*17. artikulua.*– Prozeduraren hasiera.

1.– Gobernu Kontseilurako edo Batzorde Iraunkorrerako proposamena edo erabakia aurkeztu nahi duten unibertsitateko organoek, kasuan-kasuan eskumenak

diez días para hacer reclamaciones sobre su contenido. Si no se produjeran reclamaciones, transcurrido dicho plazo, se considerarán aprobadas; en caso contrario, se someterán a su aprobación en la siguiente sesión del órgano renovado.

6.– Las actas del Consejo de Gobierno se harán llegar tras su aprobación al Consejo Social, a los Vicerrectorados de Campus, a los Centros Docentes, a las Secciones Sindicales y al Consejo de Estudiantes de la UPV/EHU, quedando a disposición de cualquier miembro de la Comunidad Universitaria que las solicite.

*Artículo 15.*– Publicidad de los acuerdos.

1.– La Secretaría General publicará en la página web, con respeto a la Normativa de protección de datos de carácter personal, el texto íntegro de los acuerdos de cada órgano colegiado, garantizando así su difusión en la Comunidad Universitaria.

2.– Con independencia de lo anterior, los acuerdos habrán de notificarse, por el órgano que los haya elevado al órgano colegiado, a las personas interesadas, que podrán impugnar el citado acuerdo a partir del momento en que se produzca la notificación en los términos establecidos por la Ley.

*Artículo 16.*– Ejecutabilidad y recurso en vía administrativa.

1.– Los acuerdos adoptados por el órgano colegiado serán efectivos desde su aprobación, si en los mismos no se hubiera dispuesto otra cosa. Corresponde al órgano competente en la materia en el seno del Consejo de Dirección responsabilizarse de la ejecución de los acuerdos del Consejo de Gobierno.

2.– Contra los acuerdos del Consejo de Gobierno, de la Comisión Permanente y del resto de comisiones delegadas del mismo, se podrá interponer, en el plazo de un mes, recurso potestativo de reposición, ante los mismos órganos que los dictaron. En el caso de que no fuera previsible una reunión del órgano en el plazo establecido para la resolución respecto de la petición de medidas cautelares, queda delegada la misma en el Rector o en quien le sustituya conforme a la Resolución del Rectorado referida en el artículo 245 de los Estatutos.

TÍTULO II

PROCEDIMIENTOS

CAPÍTULO I
PROCEDIMIENTO PARA LA TRAMITACIÓN DE PROPUESTAS Y ACUERDOS ANTE EL CONSEJO DE GOBIERNO

*Artículo 17.*– Inicio.

1.– Los órganos universitarios interesados en elevar una propuesta o acuerdo ante el Consejo de Gobierno o su Comisión Permanente deberán iniciar su trami-

dauzkan Zuzendaritza Kontseiluko kidearen bitartez emango diote hasiera prozedurari.

2.– Hori dela eta, kide anitzeko organoaren bileraeguna baino hilabete lehenago bidaliko da Gizarte Kontseiluarentzako proposamena kasuan kasuko errektoreordetzara, Idazkaritza Nagusira edo Gerentziara. Erabaki proposamenari buruzko dokumentuak bi hizkuntzetan egongo dira; eta, ahal den neurrian, proposamen horien eranskinak ere bi hizkuntzetan egongo dira.

***18. artikulua.***– Espedientea osatzea eta aztergaien zerrenda prestatzea.

1.– Zuzendaritza Kontseiluko kasuan kasuko kideak, beharrezkoa izanez gero, txostenak bildu eta Idazkaritza Nagusira bidaliko du espediente osoa (ahal izanez gero euskarri informatikoan), organoaren bilera eguna baino hamabost egun lehenago. Gauza bera egin beharko da arautegi honetako 8.1 artikuluan adierazitako eskarietarako.

2.– Idazkaritza Nagusiak, errektorearen aginduz, kide anitzeko organoak aztertuko dituen gaien zerrenda egingo du. Bertan bilduko beharko dira epearen barruan bidalitako erabaki proposamenak eta gainerako gaiak.

3.– Aparteko kasuetan, eta behar bezala justifikatuta, errektoreak aztergaien zerrenda zabaltzea erabaki dezake, betiere, arautegi honetako 7. artikuluan zehaztutako epeei jarraituz.

II. KAPITULUA
ARAUTEGIAK EGITEKO PROZEDURA

***19. artikulua.***– Proposamenen tramitazioa.

1.– Arautegien proposamenak unibertsitateko Idazkaritza Nagusian aurkeztuko dira eta idazkaritzak Estatutuak eta Arautegiak Garatzeko Batzordera bidaliko ditu, txostenarekin batera.

2.– Batzorde horrek Idazkaritza Nagusiak bidalitako proposamena aztertuko du eta, beharrezkoa izanez gero, aldaketak egingo ditu.

3.– Testuaren lehen bertsio osoa Gobernu Kontseiluan aurkeztuko da, eta zuzenketak egiteko epea irekiko.

***20. artikulua.***– Zuzenketak egiteko prozedura.

1.– Gobernu Kontseiluko kide guztiek egin ahal izango dituzte zuzenketak horretarako egongo den epearen barruan, batzordeko buruari bidaliko dioten idatzi arrazoituaren bitartez. Unibertsitateko kideek ere zuzenketak aurkeztu ahal izango dituzte, baina Gobernu Kontseiluko kideren batek babesa eman beharko die zuzenketa horiei bere sinadurarekin, eta kide hori izango da zuzenketak aurkezteko arduraduna.

tación a través del miembro del Consejo de Dirección competente.

2.– Para ello, un mes antes de la fecha prevista para la celebración de la sesión del órgano colegiado, se remitirá al Vicerrectorado correspondiente, a la Secretaría General o a la Gerencia, la propuesta que se pretende elevar al Consejo de Gobierno. Los documentos de propuesta de acuerdo deberán ser bilingües y, en la medida de lo posible, los anexos que acompañen dichas propuestas serán también bilingües.

***Artículo 18.***– Formación del expediente y elaboración del orden del día.

1.– El miembro del Consejo de Dirección correspondiente recabará, en su caso, los informes necesarios y enviará a la Secretaría General el expediente completo, preferentemente en soporte informático, con 15 días de antelación a la fecha prevista para la celebración de la sesión del órgano, lo que igualmente se aplicará a las peticiones contempladas en el artículo 8.1 de este Reglamento.

2.– Con las propuestas de acuerdo y demás asuntos remitidos en plazo, la Secretaría General, por indicación del Rector o de la Rectora, confeccionará el orden del día de la sesión del órgano colegiado.

3.– Por causas excepcionales, debidamente justificadas el Rector o Rectora podrá proceder a la ampliación del orden del día en curso, con respeto a los plazos previstos en el artículo 7 de este Reglamento.

CAPÍTULO II
